

€konomiarenKZ

Euskal Ekonomiaren Kazeta

19. alea • 2010eko Apirila-Ekaina • Doaneko Alea • Hirugarren Urtea • Harpidetak: 944213031 • Lege Gordailua: BI - 0371 - 08

Orain ere Interneten: www.ekonomiarenkz.eu // ekonomiarenkz.wordpress.com

ELKARRIZKETA



Jose Angel Corres
Bilboko Merkataritza Ganberako presidentea

“Egoera eskasa bizi dugu, baina azken hilabeteetan hobetu egin da”

16. orrialdea



Marian Egaña
Alhóndiga Bilbaoko kontseilari delegatua

“Alondegiairen helburua hirian jada existitzen den eskaintza osatzea da”

11. orrialdea

Parke Teknologikoez krisialdia gainditu dute



Une honetan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Parkeek eta Garaiaiko Berrikuntza guneak 400 enpresa baino gehiago eta 14.000 lapostu inguru sortzen dituzte; horretaz aparte, 3.500 milioi euroko fakturazioa dute. Hain zuzen ere, aurtengo datuak aurreko ekitaldikoekin alderatuz, enpresen kopuruak %3ko igoera izan du. Dena dela, alde negatiboari dagokionez, fakturaketak %5 jaitsi egin du.

5. orrialdea



EAEko egoera ekonomikoa Estatukoa baino oparoagoa da

Standard & Poor agentziak euskal ratingaren inguruko azterketa egin du, eta emaitzak positiboak izan dira Euskadira, baina ez hainbeste Estatuko ekono-

miarako. “Euskadiko egoera ekonomikoa hobetu daiteke, Estatuan ezarri den sistema eta erregimenetik bereiziko balitz”, epaitu du ikerketak.

8. orrialdea

EAEko kaleratzeen kostuaren inguruko eztabaida ireki da

EAE, 134.000 langabe inguruk eman dute izena INEMeko zerrendetan. Halaber, Euskadiko kaleratzearen kostuak Europako batez bestekoak baino altuagoak dira; hortaz, CEOEren ustez, Euskadiko kaleratzea garestiegia da, sindikatu anitzen iritzia kontrakoa izan arren.

13. orrialdea



INGURUGIROARI BURUZKO XI. IKASTAROA XI CURSO SOBRE MEDIOAMBIENTE

2010eko Uztailak 6, 7 eta 8 ♦ 6, 7 y 8 de julio de 2010

Bizkaiko Batzar Naguslak v Juntas Generales de Bizkaia
Hurtado Amézaga, 6 (Bilbo) v C/Hurtado Amézaga, 6. (Bilbao)

Orduategia/horario: De 09:30etatik a 14:30etara

Izenematea eta informazio gehiago ♦ Información e inscripciones
Teléfono 94.421.30.31 telefonoan www.leizaola.org

DOANEGO JARDUNALDIAK ♦ JORNADAS GRATUITAS

Zentru bakoitzaren konbaldazio komisioaren baitan UPV/EHUko ikasleek kreditu bi (2) eskura dezakete. En función de la comisión de convalidaciones de cada centro, los/as estudiantes de la UPV/EHU pueden obtener dos (2) créditos convalidables.



ANTOLATZAILEAK:



ELISKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikoakko Sailburuordetza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Ministerio de Política Lingüística

KULTURA SAILAK
(KULTURA SAILA HIZKUNTZA
POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)
DIRUZ LAGUNDUTAKO



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Ekintza honek Bizkaiko Foru
Aldundiairekin Kulturazko Saitaren
laguntza jasotzen du.

ADITUAREN
IRITZIA

Felipe Serrano

UPV/EHuko ekonomia
katedraduna

Pentsioen erreforma

Gobernu zentralak aurrera eramandako proposamena positiboa dela esan genezake, batez ere, jubilatzaileen adina atzeratzea Gizarte Segurantzaren sistema finantzarioaren oreka lortzeko onuragarria izan daiteke.

Hala ere, langileei dagokienez, ezarritako neurria negatiboa suerta daiteke, baina langile talde askoren kasuan ondorioak ez dira hain latzak izango, euren baldintzak ez baitira okertuko. Hori dela eta, gomendagarria izango liteke lege berri hau beste aldaketa batzuekin batera ezartzea, lan eremuan langile askok ukituta ez izateko xedearekin.

Europar Batasuneko gainontzeko herrialdeekin alderatuz, Espainian askoz nabariagoa izango da zahartzaren efektua; hortaz, tendentzia demografikoa ez aldatzekotan, zahartze prozesuak bortitzagoa izango da Estatuan EBean baino.

Dena dela, orokorrean esango nuke neurri hau ez dela krisialdi ekonomikoaren ondorio soila, erreforma beharrezkoa izango liteke eremu publiko saneatuekin.

GORA

KGEEren Estatuko ekonomiaren inguruko aurreikuspenak hobetzen dira

Kooperazio eta Garapen Ekonomikorako Erakundeak (KGEE) bere ikerketan luzatutako emaitzen arabera, Estatuko Barne Produktu Gordina (BPG) %0,2 puntu jaitziko da aurreko urteko azaroan kalkulatu zuena baino hamarren bat gutxiago), 2011an, aldiz, %0,9 puntutako igoera izango duela aitortzen duen bitartean. Gobernu espainiarrek maneiatzen dituen aurreikuspenei begira, berriaz, aurreko ekonomia %0,3 murriztuko dela iragartzen dute, baina datorren urtean 1,3 puntu haziko dela aurreikusi dute.

KGEEren aburuz, Estatuko Gobernuak 2011an defizita %7 murrizteko diseinututako planarekin bat egiten dute, eta lehenbailehen inplementatu behar dela jakinarazi dute. Dena den, "pentsioen erreforma ere beharrezkoa da, finantza publikoek oinarri egonkorra izan dezaten", gaineratu du Erakundeak.

Halaber, aurtengo lehenengo hiru hilabeteetan jasandako igoera nimoioak eritimo beran jarraitu du 2010ean, nazioarteko eskaerari esker, eta neurri txikiagoan ere kontsumo pribatuaren eraginez, aurrezki pribatuak %19 igoeratu.



Aurreko urteko hazkundeak egongo da, baina geldoa

BEHERA

Iberdrolak ACSren kontra egiten du 2009ko kontuak direla medio

Iberdrola eta ACS eraikuntza enpresa espainiarren arteko tirabirek aurrera egiten jarraitzen dute; kasu honetan, euskal enpresak ACS salatu du, haien ustetan 2009an erakutsitako kontuak ez dutelako Florentino Perez enpresaren egoera patrimoniala behar bezala isladatzen. ACSk garai luzea darama Iberdrolaren %20 kontrolatzeko saiakerak eginez, baina Ignacio Galan Iberdrolako presidentek Madrileko auzitegira jo du salaketa jartzeko xedearekin.

Enpresa bilbotarrak aurrera eramandako salakuntzen arrazoi nagusia da "ACSren patrimonio erreala bere txostenetan" agertzen ez dela, esaterako. Dirudienek, salaketan esaten den bezala, egoera finantzarioak "ez du bat egiten indarrean dagoen legediarekin".

Iberdrolaren akzioei dagokienez, Juan March Alba Korporazio Finantzarioko presidentek, ACSko akziodun nagusiak, adierazi du eraikuntza enpresak ez duela epe laburrean Iberdrolaren %20 eskuratuko.



Florentino Perez, ACSko presidentea

KOMIKI



www.blazquezcobo.blogspot.com

STAFF:

HARREMANETARAKO TELEFONOA: 94 421 30 31
WEBGUNEA: www.ekonomiarenkz.eu
BLOG: ekonomiarenkz.wordpress.com
POSTA ELEKTRONIKOA: info@ekonomiarenkz.eu
POSTA HELBIDEA: 612 Posta Kutxatila, 48080 Bilbo
EUSKARAREN ARDURADUNA: Labayru Ikastegia
EGILEA: Leizaola Elkarte
HARPIDETZAK: 94 421 30 31 telefonoan.
Aldizkari hau **USOA LANTEGIAK** banatu du

Banaketa:



Egin zaitzek harpide!

Ekonomiaren KZ etxean hileroko doan jaso nahi baduzu, bidal ezazu ondorengo kupoa honako helbidera:

• 612 Posta Kutxatila, 48080 Bilbo,

edo idatz ezazu info@ekonomiarenkz.eu posta helbidera, zure izen-deiturak, helbidea, telefonoa eta posta elektronikoa adieraziz.

ABIZENAK: _____

IZENA: _____

HELBIDEA: _____

E-MAIL: _____

TELEFONOA: _____

P.K.: _____

HERRIA: _____

ALBISTEAK

Jaurlaritzak Gobernu zentralerako neurriak ezartzearen alde egin du

Espainiako Gobernuak aurrrera eramandako erabakia edo neurriak Euskal Herrian ere aplikatu dira. Patxi Lopez Eusko Jaurlaritzako lehendakariak Zapateroren eredua segitzea erabaki du, oposizioko alderdi politiko gehienek bere kontra egon arren, hortaz, Gobernu zentraleratik datozen normatibak edo murrizketak Euskadin ere inposatu dira. Neurri horiek eraginkorrak izateko, aurten soldatetan 87 milioi euro aurreztu nahi ditu, hau da, osotasunaren %5 hain zuzen; horregatik, hurrengo urtean ere izoztuko dira soldadak.

Neurririk eztabaidatuena

Lopezek zin egin du Jaurlaritzan lan egiten duten goi kargudun guztiaren soldadak jaitziko dituztela aurten, funtzionarioei orokorrean aplikatuko dietena baino



Lopezek dio helburua lanpostuak sortzea dela

kopuru handiagoa. Zehazki, neurria ezarri nahi dute administrazioetan, foru aldundietan eta udaletan.

Halaber, lehendakariak erretiroagatik 166 lanpostu eta azken urtean bete ez diren beste 138 lanpostu kenduko dituztela ezagutzera eman du; bestalde, ordezkatzeko eta lan pilaketako

kontratazioak %8 murriztuko dituztela jakinarazi du.

Jaurlaritzak soldatetan 87 milioi euro aurreztuko ditu

Horretaz gainera, administrazio publikoko soldadak 2011an izoztuko dira, horren ondorioz, Lopezek 30 milioi euro aurreztu nahi ditu. Alderdi politiko, sindikatu eta beste fundazio eta erakundeei bideratutako laguntzak ere jaitziko dituela esan du lehendakariak, %3 hain zuzen.

Hau guztiaren helburua lanpostu berriak sortzea eta enpresen leihakortasuna hobetzea da, "aurreztuko dugun diruarekin lan egoera hobetuko da", dio Lopezek.

Alderdi politikoaren jarrerak

Popularrak Lopezek erabakiarekin ados dauden bakoarrak direla esan dezakegu, edo gutxienez Basagoitik hori aditzera eman du. Aldiz, Joseba Egibarrek dio "euskaldunok ez dugu Espainiako zorra ordaindu behar", eta Aralarreko ordezkariak EAJko politikariarekin bat egiten dute "neurri hauekin betikoez gerrikoa estutuko" dutela gaineratuz.

Aralarren iritziarekin bat egiten dute EAko eta EBko ordezkariak, "neurri hauekin krisia pentsiodunek eta funtzionario publikoek ordainduko dute soilik", komentatu du Mikel Arana EBko bozeramaileak.

Euskadiko BPGk emaitza positiboak lortu ditu

Euskal Autonomi Erkidegoak 2010eko lehenengo hiruhilekoan lortutako emaitza ekonomikoak oparoak izan dira, edo gutxienez, Eustatek emandako datuen arabera EAeko Barne Produktu Gordina (BPG) %0,1 hazi zen tarte horretan, aurreko hiruhilekoarekin alderatuz. Gauzak horrela, urte arteko tasari dagokionez, emaitza positiboetara hurbiltzen ari da. Hortaz, Carlos Aguirre Eusko Jaurlaritzako Ogasun sailburua baikor agertu da emaitza hauen aurrean, "gorakada txikia izan da, baina hazkunde azken finean", adierazi du sailburuak.

Aldiz, EAeko urte areko BPGren aldakuntza %0,6koa

da aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, 2009ko laugarren hiruhilekoan urte arteko %2,25eko murrizketa izan zelarik. Urte arteko tasan, Espainiako ekonomia %1,3 murriztu da, aurrez batespenaren arabera.

Euskadiko emaitzak Estatukoaren aurretik


2009. urteko BPGren datuak ardatza moduan hartuta, ikerketa interesgarria aurrera eraman da, non Estatuko erkidego edo lurralde bakoitzaren BPG aztertu den. Hain zuzen ere, ikerketaren helburua, Estatuko erkidegoetako biztanle bakoitzeko BPG kalkulatu egin da, eta EAE garaile atera da 2009ko

emaitzak kontutan hartuta. Estatistikako Institutu Nazionalak (EIN) luzatutako rankinean, EAEk lehenengo postuan agertzen da, Madril eta Nafarroaren aurretik.

Bestalde, Espainiako marka EBkoaren azpitik ere aurkitzen da, datu kezagarria Estatuko ekonomiarako. Aldiz, gainontzeko erkidegoak kontutan hartuz, Extremadura, Gaztela-Mantxa eta Andaluzia ukituenak izan dira.

EAEko sektoreen bilakaera

Oro har, hazkundearen ardatza zerbitzuak izan dira esanenez, jokaera erlatiboki hobea izan baitu aurtengo lehenengo hilabe-



Iturria: Bilboko Merkataritza Ganbera
2009ko BPG biztanleen arabera / Espainia = 100

teetan zehar. Dena dela, industria eta eraikuntza sektoreek, aurreko hiruhilekoaren aldean bilakaera apalagoa, baina negatiboa ere izan dute. Enpleguaren kasuan, berriz, bilakaera ezkorra izan da, %1 atzera egin baitu Eustaten arabera. Aguirreraren adierazpenei begira, sailburuak dio urte-

ko lehen hiruhilekoaren amaieran eta bigarrenaren hasieran eritimo "biziagoa" somatu duela. "Hori dela eta, EAeko ekonomia urte arteko tasan ere atzean utzi ditu zenbaki negatiboak", gaineratu du Aguirrek. Jaurlaritzak egindako azken kalkuluen arabera, BPGa %0,5 haziko da aurten Euskadin.

ALBISTEAK

Uribe Kostako Ospitaleak 2013an irekiko ditu ateak

Uribe Ospitaleko lanek maiztasun hasiera izan zuten, hain zuzen ere, ospitalea Bizkaiko Urduliz udalerrian kokatuta dago eta eskualdeko 170.000 biztanlek harrera egingo dute bertan.

Ospitalaren handitzearen bidez, 2015eko udatik aurrera eskualdeko herritarrek zerbitzu hori ere izango dute eskura.

Zerbitzuak eta espezialitateak

Espezialitate mediko eta kirurgiko ia guztiak izango ditu Uribe Kostako Ospitaleak; gainera, Eusko Jaurlaritzak aurkeztutako proiektua eraldatu eta zabaldu du Rafael Bengoa Osasun eta Kontsumo sailburuaren taldeak. Inbertitu beharkeko zenbatekoa %30 handitu baitu, 78 milioi euro hain zuzen.

Gauzak horrela, Gurtzetako Ospitalearen (Barakaldo) lan zama arintzea da Urdulizen eraikitzen ari den ospitalearen helburuetako bat. "Espezialitate guztiak izango dituen ospitale orokorra egingo dugu, eskualdearen beharrian



Eraikina 36.000 metro karratukoa izango da

Inbertituko da aurreikusitakoa baino %30 gehiago

Lanen lehenengo fasea, lurra eta egitura mugitzea, 2011ko irailean bukatuko da eta bigarrena, etxaurreak, guneen banaketa eta instalazioak, 2013aren hasieran. Hortaz, ospitalea hornitu ondoren, urte horretako maitzean egongo da prest Uribe Ospitalea eta hilabete barru Ama-Haurrentzako Pabiloiko lanak hasiko dira.

guztiei erantzuteko gai izango dena", azaldu du Julian Perez Gil Osakidetza zuzendariak.

Halaber, teknologia berriak ere erabiliko dituzte, medikuntza jarduteko ez ezik, langileen lana errazteko. Bengoaren adierazpenen arabera, "erreferentziako ospitalerik ez duen eskualde bakarra da Uribe

Kosta", baina 2013. urtetik aurrera muga hori gaindituko da.

Azpiegiturak

Urdulizeko ospitaleak zortzi ebakuntza gela izango ditu eta kanpo kontsultetarako 50 lokal. Guztira, 216 ohe izango dira, eta Jauraritzaren aurreikuspenen arabera,

urtean 11.450 ospitaleratze hartuko ditu zentroak.

Hain zuzen ere, 36.000 metro karratu eta 60 milioi euro erabili beharko dira eraikina egiteko. Gainera, ospitale berriak hainbat espezialitate mediko izango ditu, onkologia barne, eta lanpostuei begira, zuzeneko 800 eta zeharkako 700 lanpostu sortuko dira.

Euskal udalak egun osoan irekita egoteko prest daude

Euskadiko Udalen Elkartearen (Eudel) presidentek, Jokin Bildarratzek, administrazioak 24 ordu irekita mantentzearen alde egin du eta bere helburuak hiritarren eskaintzak asetzearrekin lotura du. Bildarra-

titate hauek operazio gehienak Interneten bidez egiten baitituzte. "Nahiz eta hasiera batean udalerriztat pentsaezina izan, hori da guk nahi duguna eta epe laburrean lortzea espero dugu", gaineratu du Eudeleko presidentek.

EISCO kongresua

Eudelek EISCO kongresua antolatzeke konpromezua hartu du, bere erronka edo xede nagusiak hurrengo biak izanik: alde batetik, Europarekin duen lotura sendotzea, hots, EISCO kongresuaren bidez pausu berriak emango dira europar udalerriekin harremanak estutzeko.

Bestalde, udalerriekiko

konpromezua bultzatzea; kasu honetan, udalerriak dira hiriak aldatzeko motor edo sustatzaile nagusiak.

Hain zuzen ere, kongresuan komentatu diren beritasunen artean, Bildarratzen helburua da Euskadiko udalak eguneko 24 orduak irekita mantentzea, hiritarren eskaintzak guztiz asezteko; horretarako, Eudeleko presidentek Interneteko erabilera bultzatu du kongresuan zehar, non Europako 200 udalerririk baino gehiago parte-hartu dute. Udalerrien artean agertu ziren: Polonia, Txekiar Errepublika, Erresua Batua eta Herbeherak, besteak beste. Kongresuan Internetarekin lotura duten

40 proiektu edo esperientzia aurkeztu ziren.

Udal Legearen ondasunen banaketa

Bildarratzek Udal Legearen inguruko eztabaida berpiztu du, duela 30 urteko euskal udalen eskabiren eskaintza aurrera eramanez gero, udalerririk Euskadiko Exekutibo autonomoaren eta lurraldeko hiru foru administrazioen instituzio eskemaren parte bihurtuko lirake.

Era berean, Eudeleko ordezkari nagusiak eskumenen, eratzunkizunen eta baliabideen banaketa berria aurrera eramango dela aitortu du, udal ho-



Jokin Bildarratz, Eudeleko presidentea eta Tolosako alkatea

riek indar gehiago lortzearen helburuarekin.

Orokorrean, udalerririk batu dira proiektua ateratzeko egungo legealdia bukatu baino lehenago. Bildarratzek, bere aldetik, planari dagokionez, positibo aurkeztu da eta ondo iruditu zaie Eusko Jaurlaritzaren eta aldundien jarrera.

Azkenik, Eudeleko presidentek aitortu du "oztoporik handiena krisialdia" dela eta "dirurik ez egotekotan, ez dugu legea nahi".

EISCO kongresuan 200 europar udalerririk parte-hartu dute

tzek bere ideia alderatu du Kutxa eta BBK euskal kutxak aurrera eramanez duten proiektuen emaitzekin, en-

ALBISTEAK

Getxoko ekintzaileen sustapenaren gorakada

2009an Getxolanen laguntzari esker 24 enpresa inguru sortu ziren lurraldean, haietariko gehienak merkatu txikiarekin lotura izanik. Hain zuzen ere, sortutako guztien artean, haietariko bakoitzatik lauk merkataritza sektorearekin zerikusia zuten; %21ak eraikuntza eta erreformekin; %13ak merkataritza-

tzaren bitartekotzearekin; eta gainontzeko %8ak osalaritzarekin izan zuten lotura.

Horrez gain, Getxoko udalak, Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo sailarekin batera, bi motako ekintza aurrera eman zituen pasaden hilabetearen.

Berjon: "Parke Teknologikoeak krisialdia gainditu ahal izan dute"

Francisco Berjonek, Euskadiko Parke Teknologikoen Sareko presidentea, I+G sektorearen inguruan hitzegin zuen 'Nueva Economía'aren eskutik emandako mintzaldian. Bertan, Berjonek euskal Parkeen Sarearen egoera ikertu eta azaldu egin zuen, lehenik eta behin argituz, Euskal Herriko sareak IASPen barnean aurkitzen dela, hau da, Nazioarteko Parke Teknologiko eta Zientifikoen Erakundearen barne. IASPen 350 parke inguru daude, 72 herrialde desberdinetakoak, non 200.000 enpresa baino gehiago eraiki diren.

Krisialdia eta egungo enpresen ereduak

"Egoera ekonomikoa ez da batere oparoa, baina kontua ez da soilik EAEn edo Estatuan zentratzen; horretaz gain, bi fenomeno dira aldaketa ekonomikoa lideratu egingo dutenak", komentatu zuen Parkeen Sareko presidentea. Berjonek ustez, bi ezugarriek "Ezagutzaren ekonomia" eta globalizazio prozesuarekin lotura dute, eta "bi fenomeno horiek eragin handia izango dute egungo egoera ekonomikoaren aldaketan".

EAEn gailentzen diren enpresa mota ETEak dira; halere, kasu honetan ere, "Parke Teknologikoen papera garrantzitsua da, hasieratik, tresna honen helburu nagusia ekintzaile eta ikertzaileen lana go-rapatzeari izan delako", gaineratu du Berjonek.

"Euskal enpresak gero eta sofistikatuagoak bihurtzen ari direnez, zerbitzuak ere berrituko eta garatuagoak izan beharko dira", argitu du Sareko presidentea. Gainera,



Berjonek aburuz globalizazio prozesua krisialdiatik ateratzeko lagungarria izango da

Berjonek proiektu mota hauetan parte-hartze aktiboa bultzatu egin du.

Berrikuntza eta garapena

Une honetan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Par-

izan du. Dena dela, alde negatiboari dagokionez, fakturaketak %5 jaitsi egin du.

"Oro har, berrikuntza Parkeetan kokatuta dauden enpresen apustu garbia izaten jarraitzen du; hori dela eta, sare honetan sartuta dauden enpresak berritzaileagoak dira", informatu du Berjonek.

Epe laburrera begira, 2010erako, Sareko presidentea aurreikusi egin du Euskadiko Parke Teknologikoei 67 milioi euro azpiegiturretan inbertituko dituztela. "Gure sarea oso lagungarria da barnean dauden enpresentzat, krisiaren ondorioak inon baino hobeto jasaten baitira eta bertan dagoen berrikuntza mailari esker, enpresa leihakorren artean aurkitzea ez da zaila, etorkizunean lidergoa lortzeko aukerarekin", zehaztu du Berjonek.

Aurten 67 milioi euro inbertituko dira azpiegiturretan

keek eta Garaia Berrikuntza guneak 400 enpresa baino gehiago eta 14.000 lapostu inguru sortzen dituzte; horretaz aparte, 3.500 milioi euroko fakturazioa dute. Hain zuzen ere, aurtengo datuak aurreko ekitaldian, argitu du Sareko presidentea. Gainera,

toda la información de bilbobus en tu propio móvil y a tiempo real



descarga la aplicación



via bluetooth acceso en la plaza circular y termibus



link desde móvil con un sms-enlace desde otro móvil



sms bilbus 5195 envía bilbus al 5195 coste: 0,15 cts. + IVA



www.bilbus.mobi navega desde tu móvil y descarga

Bilbobus

Bilbao
AYUNTAMIENTO

I+G+i ALBISTEAK



Ekimenaren logotipoa

Ikerlan-ik4k beste saria jaso du bere sistema txertatuei esker

Ikerlan ik4k beste saria jaso du sistema txertatuei buruzko proiektu batengatik, EnCompAs-2 deiturikoa. Hortaz, sistema txertatuetan Ikerlan-ik4k Europar duen kokapen estrategikoa are gehiago indartu da; hala eta guztiz ere, ITEA 2010 sariaren brontzeko domina eman diote izendatutako proiektu lantzeagatik.

Ikerketa Teknologikoen zentroak ezagutza teknologikoa garatzeko ikerketalerroa irekitzea erabaki zuen; horretarako, laborategi bat sortu du Arrasateko egoitzan. Hortaz, laborategian etxebizitza jakin bateko gelak sortu dituzte, eta sistema txertatuetan oinarrituta. Hain zuzen ere, etxetresna elektronikok dituzten sistema txertatuei esker, etxebizitza horretan bizi direnek hainbat abantaila dute.

Laborategiaren ezaugarriak

Txertatutako gune horretan ekintza antzaz eraman dira aurrera, hainbat erabilera baititu. Horretaz gainera, zentro teknologikoak esperientzia handia

du Europa-mailan; halere, Europako Artemisia Elkarte Industrialeko zuzendaritzabatzordeko kide da, batzorde horren funtzioa da produktuei ahalmena eta lehiakortasuna handitzeko sartzan zaizkien sistema elektronikoen adimenduen ikerketa teknologikorako plataforma handiena kudeatzea.

Laborategi bat sortu dute Arrasateko egoitzan

Zehazki, sistema txertatuetarako fidagarritasun-metodologiaren egiaztagiria lortzeko prozesua martxan jarri duen lehenengo erakundea da Espainian. Halaber, izen handiko beste erakunde batzuekin batera garatutako hainbat produktuk Europaren aintzatespena lortu dute. Horren adibide bat SmartTouch proiektua da, pertsonen eta haien ingurunearen arteko elkarrekintza erraz eta intuitiboan lortu nahi duena.

Europako Agenda Digitala errealitatean bihurtzen da

Europa 2020 deituriko planak bere lehenengo ekimena aurkeztu du, helburua aurrerapen iraunkor eta adimendu hazkorra lortzea izanik; ekimenaren izena Europako Agenda Digitala da, hain zuzen.

Zehazki, Agenda horrek zapi multzo edo taldetan banatzen da: merkatu digital bakarraren sorkuntza; intereraginkortasunaren hobekuntza; Internetarekiko konfidantza hazkundera eta sarearen segurtasuna; Internetaren sarbideari buruzko bizkortzea; ikerkuntza eta garapenaren inbertsioaren gorakada; alfabetatzearen sustapena eta tresna digitalen trebakuntza eta barneratzea; eta azkenik, IKTen aplikazioa, egungo gizarteak dituen erronkak gainditzeko eta emaitza positiboak lortzeko, aldaketa klimatikoa eta biz-

tanleriaren zahartzearen kasuak, esaterako.

Oro har, Agenda Digitalak zazpi sektore hauekin lotura duten ehun neurri inguru aurreikusten ditu.

Estatu espainiarraren atzerapena

Banda zabalari dagokionez, Estatuko datuak oso baxuak eta pobreak dira Europar Batasuneko gainontzeko herrialdeekin alderatuz, Internetaren abiaduraren kasuan, Espainiak

Espainiarren %36 inoiz ez da Interneten sartu

(%21,5) EBko batezbestekoa baino %3,3 puntu gutxiago baititu, 2010eko urtarrileko emaitzei begira.



EBko teknologiak aurrerapausu handiak emango ditu Agenda berriarekin

Horrez gain, Europako Batzordeak luzatutako txostenaren arabera, espainiarren %36 inoiz ez da Interneten sartu; beraz, orokorrean, Estatuak oraindik herrialde europar aurreratuenean atzetik mantentzen da, adibidez, Danimarka (%37,8) edo Herbeherak (%37,7).

Aldiz, enpresen emaitzei begira, Internetara daukaten Estatuko enpresen artean, %94ak banda zabala erabiltzen du, hau da, EBko bigarren tasarik altuena.

Euskampus plana EAEko ekonomia eta kultur arloak sustatzeko sinatu da



UPV/EHUko errektore Iñaki Goirizelaiak, Donostia International Physics Center (DIPC) Fundazioko presidentea Pedro Miguel Etxeniketik eta Tecnalia Corporación Tecnológica zuzendari nagusi Joseba Jauregizarrek Euskampus izeneko proiektua prestatzeko hitzarmena sinatu egin dute. Proiektua UPV/EHUren inguruan nazioarteko erreferentzia gunea eratzeko sortu da.

Euskampus plana Hezkuntza Ministerioak Universidad 2015 estrategiaren barruan bultzatutako Nazioarteko Bilkuntza Campusaren deialdiaren esparruan kokatzen

da. Deialdiaren helburua elkarretaren, espezializazioaren, diferentziazioaren eta nazioartekotasunaren bidez

I+G+b arloko lankidetzak sustatzea helburuen artean aurkitzen da

unibertsitateen lehiakortasuna hobetzea da. Gauzak horrela, Euskampus egitasmoan partaide diren hiru erakundeak ahalik eta modurik eraginkorrean arituko dira elkarlanean ikerketa eta

berrikuntzaren, teknologia transferentziaren eta azpiegiturak eta ekipamenduak erabiltzearen arloan.


Proiektuaren xedea

Orokorrean, proiektuaren eginkizuna Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) gizarte, ekonomia eta kultur eraldaketarako prozesuan trakzio elementu gisa jardutea eta ezagutza zientifiko eta teknologikoaren abangoardiara eramatea da.

Horregatik, I+G+b arloko lankidetzak sustatu eta euskarri gizararekin elkarri eragiteko duen ahalmenagatik, Euskampus erreferentzia eredu gisa bultzatu nahi da, besteak beste.

HILEKO GRAFIKOAK

EAEko berrikuntza indizea Europako batzbestetik gora dago




Europako Berrikuntza Indizeak (EIS) 0,51ko balioa izan du Euskal Autonomi Erkidegoan 2009an, Eustaten datuen arabera. Gauazk horrela, Europar Batasuneko 27 kideen artean EAE 10. postuan dago, EBko batezbestekoa (0,48) baino gorago.

EB-27ko herrialdeak lau kategoriatan saika daitezke, hain zuzen: berrikuntza aitzindariak (Suedia, Finlandia, Alemania...); goi mailako berrikuntza duten herrialdeak (Austria, Frantzia, Herbeherak...); neurrizko berrikuntza duten herrialdeak (Portugal, Espainia, Grezia, Italia...); eta berrikuntza txikiko herrialdeak (Errumania, Letonia...).

Iturria: EUSTAT

EAEko industriako prezioak %1,2 igo dira




EAEko industri prezioak %1,2 igo ziren 2010eko apirilean aurreko hilaren aldan. Datu horiek kontutan hartuta, apirileko urte arteko tasa %3,3ko hazkundera iritsi da, Eustatek landutako datuen arabera.

Sektoreei dagokienez, aurtengo apirilean, "Petrolioia fintzea"

(%4,5), "Metalurgia eta metalezko gaiak" (%2) eta "Kautxu eta plastikoa" (%1,1) izan dira prezioak gehien igo dituzten adarrek, aurreko hilaren aldean. Aldiz, prezioetako jaitsierarik handienak hurrengo sektoreetan izan dira: "Metalezko eta ez-metalezko mineralak" (%-0,8) eta "Zurgintza" (%-0,5), besteak beste.

Iturria: EUSTAT

Interneten erosketetan aritzen direnak %33,6 ugaritu dira



Eustaten datuen arabera, EAEko 15 urte edo gehiagoko Interneten erabiltzaileak lurralde osoko %52,6 izan dira aurtengo lehenengo hiruhilekoan, hots, 2009. urtearen aldean %4,3ko hazkundera izan da.

Halaber, Interneten bidez erosten duten pertsona kopurua nabarmen hazi da; guztira, 316.000 izan dira sarearen bidez erosketaren bat egin dutenak, %33,6ko hazkundera joan den urteko lehen hiruhilekoaren alde, hain zuzen ere.

Lurralde historikoka, Araban igo da gehien erabiltzaile kopurua (5,2 puntu), Bizkaia, berriz, beherakadarik nabarmena pairatu du (1,9 puntuen jaitsiera). Gipuzkoaren kasuan, aldiz, hazkundera 3,8 puntutakoa izan da.

Iturria: EUSTAT

toda la información de bilbobus en tu propio móvil y a tiempo real



descarga la aplicación



via bluetooth acceso en la plaza circular y termibus



link desde móvil con un sms-enlace desde otro móvil



sms bilbus 595 envia bilbus al 595 coste. 0,15 cts. + iva



www.bilbus.mobi navega desde tu móvil y descarga

Bilbobus



Bilbao AYUNTAMIENTO

ERREPORTAJEA

Ikerketen arabera EAEko irtenbidea Estatutik aldentzea izan liteke

Egoera ekonomikoaren ondorioz Grezian sortutako liskarra eta iskanbila ikusi ostean, Europako Batzardeak neurri gogorrik jartzea erabaki du. Kasu honetan, neurri horiek Espainiako Gobernuak ezarri ditu, EBko presioaren eraginez. Gauzak horrela, Zapatero presidentearen erabakiak ez dira ondo hartuak izan esparru eta talde askotan; gainera, Patxi Lopezek Euskadin neurri horiek jarraituko ditu

Krisia dela eta, gero eta herrialde gehiago dabilta neurri zorrotzak eta gordinak hartzen, batez ere, Greziako egoera errepika ez dadin. Horretarako, lurralde bakoitzeko mandatariek gastuak murriztu beharra ikusi dute; hortaz, arazoa konpontzeko eta krisialdi ekonomikoari aurre egiteko gastuak errotik mozteko eskatu diete Europako herrialdeei. Hau da, Europako Batasunak onartutako erreskate planak ez dituen konpontzen arazoaren muina, herrialdeen gehiegizko defizita eta zor publikoa, herrialdeek gehiago zorpetu beharko dute.

Ido berari jarraituz, Europar Batzardeak hobetu egin nahi du euroguneko herrialdeen politika ekonomikoen koordinazioa eta kontrola.

"Soluziobidea: Estatutik aldendu"

Standard & Poor agentziak euskal ratingaren inguruko azterketa egin du, eta emaitzak positiboak izan dira Euskadira, baina ez hainbeste Estatuko ekonomiarako. Azken batean, ikerketaren ondorioetako bat zen komenigarria izango litzatekeela Euskadiko ekonomia Estatuko sistematik aldentzea. "Euskadiko egoera ekonomikoak hobera egin dezake, Espainiako Estatuan inposatuta dauden sistema eta erregimenetik bereiziko balitz",



Joseba Egibar EAJko Gipuzkoa Buru Batzarreko presidentea

epaitu zuen agentziak bere ikerketan.

Datuak eman ostean, EAJ alderdi politikoak bere lehenengo adierazpenak egin zituen gaiari buruz, eta, hain zuzen ere, Joseba Egibar EAJko Gipuzkoa Buru Batzarreko presidentea hauxe esan zuen: "guk ekoizten dugunaren herena Espainian

"Komenigarria da Euskadiko ekonomia Estatuko sistematik aldentzea", Standard & Poor

saltzen dugu, beste herena hemen eta gainontzeak nazioartean. Beraz, Espainian saltzen dugun heren hori nazioartean saldu beharko dugu, merkatu askoz gogorrago delako eta

onuragarria izan daitekeelako". PP eta PSEko ordezkariak ez zituzten ondo hartu bere adierazpenak eta bi bandoen arteko liskarrari hasiera eman zioten. Dena den, PP eta PSEkoek ez zuten kontuan izan Egibarren adierazpenak Standard & Poor agentziak emandako datuetan oinarritu zirela.

EBren egoera ezegonkorra

EBko herrialdeen artean, argi dago Grezia dela egoerarik larrienean dagoen herrialdea, baina kontuan hartu behar da bere atzetik Espainia, Portugal, Irlanda eta Italia daudela. Zerrendatutako lehenengo biek, gehienbat, murrizketa gehiago eta egiturazko aldaketak behar dituzte, eta beren mandatariek, batez ere, lan merkatuan eta pentsioetan sartu dute eskua.

Hala eta guztiz ere, Frantziak ere aurrekontuak egonkortzeko neurriak hartu behar dituela esan du Olli Rehn Europako Gai Ekonomikoetarako eta Diru-gaietarako komisarioak.

Oro har, Europar Batzardearen helburua euroguneko herrialdeen politika ekonomikoen koordinazioa eta kontrola hobetzea da. Artikuluaren hasieran aipatzen genuen moduan, itunaren arabera, herrialdeek %3koa baino defizit txikiagoari eutsi behar diote.

Estatuan hartutako neurrien eragina Jaurlaritzan

Patxi Lopez lehendakariak Espainian hartutako neurriak EAEn errepikatuko direla jakinarazi du; Jaurlaritzak aurreko funtzionarioen itun kolektiboak berriro arren, hau da, %0,3 igo dizkie aurreko eta 2010eko KPIren pare igoko dizkie 2011n.

Beraz, Euskadiko funtzionarioen soldata ere %5ean murriztuko dute, beste neurri batzuen artean, farmazia gastuak murrizteko plana eta udal-txe eta erkidegoen aurrezpen plan orokorra, besteak beste. Hain zuzen ere, Euskal Herrian, guztira, 143.564 funtzionario publiko daude.

Lopez aburuz "soldaten eta pentsioen murrizketak ez du esan nahi ahulenen kontra jotzea". Gainera, errenta altuena dutenei zergak igotzea aztertzeko presta agertu da, baina kapital handiei 'presio' egin ez gero nahi duten tokira joan daitezkeela ohartarazi du Lehendakariak.

Bestalde, Idoia Mendiak, Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazioako sailburua, Euskadin neurriak hartu baino aste bat lehenago adierazi zuen "Euskadin gauzak ondo" egin direla eta ekonomia sendoa duela; halere, Jaurlaritzak Espainian hartutako neurri horiek ere hartzea erabaki du.

"Euskadin gauzak ondo egin dira", dio Mendiak

Sindikatuaren mugimendua

Talde sindikalen artean ez da adostasun osoa lortu eta funtzionarioen soldaten jaitsieraren aurka aldatzeko modua eta egun desberdinak erabaki dituzte.

Alde batetik, UGT, CCOO eta CSIF Espainiako sindikatuek adierazi dute auzitegira joko dutela sektore publikoko langileei ezarri nahi zaien soldata murrizketagatik, "Konstituzioaren aurkakoa baita", gaineratu dute aipatutako sindikatuen ordezkariak.

Beraz, UGTk, CCOOk eta CSIFek sektore publikorako greba deialdia ekainaren 8an egingo dute, funtzionarioek ekainetik aurrera gutxienez %5eko jaitsiera izan ez dezaten. Modu berean, EAEko hiru sindikatuek ere greba deialdia aurkeztu dute Bilbon.

Bestalde, ELA, LAB, ESK, EILAS, EHNE eta Hiruk osatutako euskal gehiengo sindikalak maiatzaren 25erako antolatuta zuten sektore publikorako greba deialdia.



Maiatzak 25ean aurrera eramandako funtzionarioen greba

Euskal Kulturaren Kolore Guztiak

ORTZADAR

Larunbateroko gehigarri berritua, DEIAN.



Aisia eta euskal kulturaren ikuspegi guztiak, gai-zemanda zabalarekin: literatura, musika, zinema, teknologia berriak, bideojokoak, publizitatea.

Xabier Mendiguren Eizegi, Unai Elorriaga, Txuma Murugarren, Kepa Petralanda, Irati Jimenez, Goizalde Landabaso, Zaldi Ero eta Ibon Egañaren eskutik.

EUSKAL KULTURAREN ORTZADARRA



ERREPORTAJEA

Alhóndiga Bilbaok ateak ireki ditu

Joan den hilean Alhóndiga Bilbao ofizialki inauguratu zen Bilbon. Ricardo Bastidak diseinatutako eraikinak guztiz berriztuta ireki ditu bigarren aldiz ateak. Lehen ardo-biltegia zena, gaur egun kultur eta kirol areto bihurtu da, Bilboko Udalaren laguntzarekin. Askotariko kultura eta aisia jarduerak eskainiko ditu zentroak: erakusketak, performanceak edota ikus-entzunezko jarduerak, besteak beste.

1909. urtean Alhóndigak lehenengo aldiz ireki zituen ateak; garai hartan, Ricardo Bastidak ardo-biltegia diseinatu zuen, baina, orain, Alhóndiga Bilbao izena hartu du, eta, gehienbat, jarduera kulturalak egiteko berririki da. Hain zuzen ere, jakintzarekiko eta kultura-sentsibilitatearekiko interesa pizteko jarduerak, bizitzako aldi guztietarako esperientzia positiboak bultzatzekoak, edota balio demokratiko sendoak ezartzen laguntzen duten jarduerak.

Jakintzak, kulturak, jarduera fisikoak eta dibertsioak bat egingo dute gune berritzaile honetan.

Eraikina eta arkitektura

Eraikinak 100 urte bete ditu, eta duela hamar, 1999an, Eusko Jauriritzak "Interes Kulturalako Ondasun" izendatu zuen. Gaur egun, kanpoaldetik zahar-

berritu eta barrualdetik itxurraldatu egin da. Egingo dako aldaketan artean, aipagarriak dira Philippe Starcken eskutik eraikitako gune berriak; hain zuzen ere, Starckek gune ireki bat eraikitzea lortu du, hiriarren luzapena izango baltz bezala. Gainera, Bilboko kale desberdinetatik heldu daiteke atarira, eta kale batetik bestera iristeko Alhóndiga Bilbao zeharkatzea ere posible da.

“Arte eszenikoetarako tokia, momentuz, hutsik geratuko da”, dio Azkunak

Alhóndiga Bilbako ateak zeharkatzen dituzten bisitariei Erdiko Plaza handi batek ematen die ongie-



Alhóndiga Bilbako igerileku zoragarria

torria. Plaza horretan 43 zutabe daude, hiru metroko altuerakoak, eta erremate bikaina dute. Bestalde, Erdiko Plazatik, barrualdeko hiru eraikin berrietara sartzeko aukera dago: mediateka, jarduera fisikoko gunea eta jarduera osagarrietarako gunea, hain zuzen ere.

Are gehiago, Erdiko Plazatik bi solairutara jo dezakegu: alde batetik, erdisotetara, non erakusketaretoa, auditoriuma, Bastida aretoa edota zenbait zinema-areto dauden. Bestalde, goiko solairura jo dezakegu; bertan, multzo arkitektonikoaren gailurrea iritsi gaitezke, non

igerilekua eta Eguzkiaren Terraza dauden. Horretaz gainera, Erdiko Plazan ere sukaldaritza gunea dago (buffeta, kafetegia eta jatetxea); bertako sukaldaren arduraduna Ricardo Pérez da.

Oro har, eraikinak Bastidak erabili zituen materialak mantentzen ditu:

Zentroaren inguruko adierazpenak

Irekieraren protagonistak Iñaki Azkuna Bilboko alkatea eta Philippe Starck proiektuaren arkitektoa izan ziren. Hedabideek haien adierazpenak jaso zituzten Alhóndiga Bilbao berriaren jaiotzan.



Starckek ez daki nola deskribatu zentroa

Oro har, proiektu konplexu, zail eta garestia izan da, mende bateko aldean eraikin bi uztartzen baititu. Horretaz gainera, Bizkaiko Foru Aldundiak Alhóndiga Bilbaotik kanpo geratzea erabaki ostean, Azkunaren gobernu taldea estu eta larri ibili da arteotan proiektua finantzatzeko. Hain zuzen ere, Bilboko alkateak azaldu duenez, “proiektua bilbotarren zergekin ordaindu da bere osotasunean, eguera ekonomiko onuragarriari esker; hala ere, momentu honetan oso zaila izango litzateke eraikitzea”. Zehazki, proiektuaren kostua 71 milioi eurokoa izan da.

“Bilbo hiri osoa izatea nahi genuen, eta ez finantza hiria soilik; horregatik, beharrezkoa zen sorkuntza, kultur, kirol eta aisialdirako zentro bat”, komentatu du Azkunak zentroaren irekieran.

“Berrikuntza eta eraldaketa ederra egin dugu; honekin batera, Bilboko hiru dinosauro zahar, suntsitu eta ziztrin erditik kendu ditugu”, gaineratu du alkateak.

Starcken ikuspuntu positiboa

Philippe Starck Alhóndiga Bilbaoren arkitektoaren lana aintzat hartua izan da une oro; gainera, Starck oso pozik agertu da emaitzeekin, izan ere, berak esaten duen moduan, “tokia ez dut diseinatu, baizik eta bizitza izan da proiektuaren diseinugilea”.

Proiektuaren kostua 71 milioi eurokoa izan da

Starckek ez daki nola deskribatu proiektua; “museoa dela esan beharko nuke? Ez. Kiroldegia, agian? Ezta ere. Liburutegia dela esan beharko nuke? Hori ere ez. Eta merkantua? Ez”, esan du arkitektoak.

“Arkitektura serio, sendo, gogor eta tinkoa da, baina guztiz erabilgarria”, gaineratu du arkitektoak.

ERREPORTAJEA

beira, adreilu gorria, hor-migoi armatua eta egurra, hain zuzen ere.

Areto eta ekintzen irekiera

Erakustaretoak 1.200 metro koadro dauzka, eta Lurra Proiektua eta Sorterria erakunde-erakusketarekin inauguratu dute, hori izan baita AlhóndigaBilbaon egin den lehenengo erakusketa edo ekintza. Ondoren, komiki eta bideo-jokoen beste bi erakusketa izango dira leku berean; eta udazkenean, aldiz, Akira Kuro-sawari buruzko erakusketa bat irekiko dute, Zinebirekin lankidetzan.

Bestalde, gainerako ekintzak edo jarduerak ez dira inauguratu Alhóndiga-Bilbaoren irekierarekin batera; esaterako, igerilekua, gimnasioa, ekintzen gela eta 'Hóla' kafetegia ekainaren 1ean irekiko dira; aste bat geroago, berri, 'La Florida' jatetxeak bere lehenengo bazkaltia-rrak jasoko ditu. Azkenik, ekainaren erdialdean, 15ean hain zuzen ere, terraza irekiko da, eta, bertan, bilbotarrek eguzkien izpiez gozatu ahal izango dute, uda bukatu arte (iraila aldean).

Dena den, aipatutako ezaugarriak ez dira Alhóndiga-Bilbaon aurkituko diren bakarrak izango; izan ere, aipatu ez diren beste ekintza edo aretoen artean liburutegia, hemeroteca eta mediateka daude, BBK Fundazioak kudeatuko dituen. Hirian dagoen liburutegien eskaintza zabal da; Bidebarrietakoarekin, Foru Aldundikoarekin eta Deustukoarekin batera, eskualdeko lau liburutegi arranditsuak izango dira.

Alabaina, badago hutsik geratu den gun bat; bertan, hasiera batean arte eszenikoaren eskolak ziren ematekoak, baina "momentuz ez dugu tokia betetzeko presarik, elementu garrantzitsu eta positiboak bilatu behar baititugu", argitu du Bilboko alkatea.

Aurrekontua

Zentroa ireki aurretik, Bilboko alkate Iñaki Azkunak esan zuen 42.000 metro koadro eraikitzeko 70 milioi euro ingurukoa dela aurrekontua, "eta beste bost behar harko dira hiriko eskaintza osatuko duen gunea hornitzeko", gaineratu zuen. Bestalde, Azkunak aitortu zuen "diru asko" dela, baina Bilbo suspertzeko merezi duela.



43 zutabeetariko bat

Marian Egaña - AlhóndigaBilbaoko kontseilari delegatua

"Auzokideek jasandako obra luzeek merezi izan dute"

Zeintzuk izango dira AlhóndigaBilbaoko zerbitzurik esanguratsuenak?

Nire ikuspuntutik, zentroaren ezaugarriak esanguratsuen zerbitzu guztien integrazioa da: mediateka, zinema, igerilekuak... hori guztia ekipamendu bakarrean izatea nabarmenena dela esango nuke. Gainera, AlhóndigaBilbaoren ordutegia ezin hobea da, goizeko 7etatik gaueko 11etara arte egongo baita irekita, asteko zazpi egunetan. Hortaz, tokiaren multifuntzionaltasunak berezi egiten du AlhóndigaBilbao.

Eraikinaren azpiegiturei eta arkitekturari dagokienez, zertan desberdintzen da hirian dauden gainerako proiektuekin?

1999. urtean, zentroa kultur ondasun izendatu zen, monumentuaren kategoria gisa; horrek pisu handia du eta gehien desberdintzen duena dela esango nuke.

"Alondegia helburua hirian jada existitzen den eskaintza osatzea da"

AlhóndigaBilbaoren helburuen artean, Bilbao erreferente bihurtzea dago. Era berean, egingo diren ekintzetan, zeintzuk izango dira gai nagusiak?

Eraikin honek erabiltzaile guztien nahiak asetzea eta komunikazioa sustatzea bilatzen du. Bestalde, AlhóndigaBilbaoren helburua hirian jada existitzen den eskaintza osatzea ere bada. Ildo berari jarraituz, gai kulturalak askotarikoak izango dira: osasuna, zientzia eta teknologia, literatura, ongizatea, etab. Hau da, oro har, ekintza pedagogikoak, edozein adinetarako.

Noizko egongo da zentroaren %100 ekipatuta?

2010eko amaierarako, azaleraren %96 prest egongo da. Guztia, 2.200 metro koadro izan ezik; izan ere, gun hori Euskal Herriko Arte Eszenikoetako Goi Mailako Zentrarako bideratuta dago.

Antzinako Alondegia erabiltzaile guztien nahiak asetzea eta komunikazioa sustatzea bilatzen du. Bestalde, AlhóndigaBilbaoren helburua hirian jada existitzen den eskaintza osatzea ere bada. Ildo berari jarraituz, gai kulturalak askotarikoak izango dira: osasuna, zientzia eta teknologia, literatura, ongizatea, etab. Hau da, oro har, ekintza pedagogikoak, edozein adinetarako.

Zentroaren fatxada mantendu egin da, eta eraikinaren 9.000 metro koadro antzinako Alondegia dagoz. Horretaz gainera, eraikinaren aurrealdea ez ezik, xehetasun ugari ere errespetatu edo mantendu dira.



Marian Egaña, AlhóndigaBilbaoko kontseilari delegatua

Dirudienez, azken 30 urteetan zehar hainbat ideia desberdin proposatu dira Alondegia eraldatzeko; zergatik uste duzu erabaki dela proiektu hau gauzatzea?

Nire ustez, ez dago arrazoi bakarra, asko baizik; horien artean, aisialdiaren eta kulturaren kontzeptuak proiektuaren ardatzak direla. Alkateak nahiz udalak bat egin dute proiektuarekin abagune ekonomiko desberdinetan.

Auzokideak izan dira kaltetuenak obrak direla-eta. Dena den, lehenengoak izan dira zentroa bisitatzen; nola erantzun dute?

Auzokideen erantzuna oso positiboa izan da; behinik behin, hori entzun nuen inaugurazioan. Nire jarrera baikorra da, beraien erantzuna ere baikorra izan delako, eta beraien jarreretan antzematen da merezi izan duela azken urte hauetako menpetasunak jasatea: aparkalekuko obrak, eraikinaren eraikuntza, zentroaren urbanizazioa, etab.

ADIERAZPENAK

Arabako turismo sektoreak gora egiten jarraitzen du

Turismoa oso sektore erabakigarria da krisi garaian, eta denboran zehar gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari den faktore bihurtu da. EAEko bidaiariaren sarrerek gora egin dute azken hilabeteetan, batez ere Araban, non sektoreak abendutik etengabe gora egin baitu. Arabako egoera turistikoa ezagutzeko, harremanetan jarri gara Arantza Zenarruzabeitia Arabako Foru Aldundiko diputatuarekin.

Sektore turistikoaren apirilko datuei begira, Euskadiko hoteletan 184.010 bidaiari sartu dira, hau da, aurreko urteko aldi berean baino 16.000 sarrera gehiago, Eustaten datuen arabera.

Aldiz, igarotako gau kopuruari dagokionez, 2010eko apirilean 332.265 gau igaro dituzte bidaiariek; joan den urteko apirilean gaua igaro zutenen kopuruarekin alderatuta, kopurua %7 gehitu da, guztira 23.000 gau gehiagorekin.

Halaber, igarotako gau kopuruak urtetik urtera bilakaera positiboa izan du Araban, %41eko gehikuntzarekin. Dena dela, Gipuzkoako (%7) eta Bizkaiko (%-1) emaitzak askoz negatiboagoak izan dira.

Plazen okupazio mailaren kasuan, iazko apirilean lortutako %41,62ko okupazioa errepikatu da, eta, beraz, ez da aldaketarik izan. Araban hazkunde nabarmena gertatu da, hots, aurreko urtean plazen okupazioa %32,10ekoa izan

zen, eta 2010eko apirilean, berriz, %38,24koa.

2010eko Aste Santua

Arabak aurtengo Aste Santuan izandako igoera pozgarria izan da turismo sektoreko langileentzat. Aste Santuko astelehenean Puzko asteko ostiralera bitartean, Euskal Autonomia Erkidego-

ko hoteletan izandako bidaiariaren sarrera-kopurua %5 areagotu da, eta %12, be-

rriz, igarotako gau kopurua, iazko datuekin alderatuz.

Aste Santuko batez besteko egonaldia handitu egin da, hots, joan den urtean 1,88 egunekoa izan zen, eta 2010ean, berriz, 2 egunekoa izan da; eta plazen arabarako okupazio maila, aldiz, 2009an %43,38koa izan zen, eta aurturtean %46,10ekoa izan da.

**Arabak
igarotako gau
kopurua %41
igo da apirilean**

Gasteiz, Hiriburu Berdea

Arabako hiriburua EAEko zonalderik berdeenaren artean dago, 6.226.067 metro koadro berderekin, Uztail Berdea kontuan hartu barik; azken horrek beste 600 hektarea gehiago ditu. Zuhaitzei dagokionez, hirian guztira 125.000 zuhaitz daude, parkeetan eta kalean zehar. Hain zuzen ere, Salburua eta Zabalzana dira Gasteizko auzorik berdeenak.

Estatu mailan, Gasteiz hiri berdeena izaten jarraitzen du; Iruñea ere gertu dago. Gauzak horrela, Europak finalista aukeratu du hiria, 2012 eta 2013. urteetan hiririk berdeenaren saria lortzeko; Europako Batzordea izan da aukeraketa egin duen instituzioa. Lehia-ketan Bartzelona, Malmö, Nantes, Nuremberg eta Reikiavikek ere hartuko dute parte; garailea urrian ezagutuko da Stockholmen, egun Hiriburu Berdea den hiria.



Enologia Arabako indargunerik nagusia da



Arantza Zenarruzabeitia

Arabako Foru Aldundiko Berrikuntza eta Ekonomia Sustapen Saileko diputatua

Zenarruzabeitia oso pozik azaldu da Arabako turismoaren inguruko azken hilabeteetako datuekin, eta espero du "aurten ekonomian ematen ari den pizkundea eragina izatea Arabako turismoan". Diputatuak argitu du azkeneko Gabonetatik emaitzak positiboak izan direla eta Arabako turismoak etengabe igotzen jarraitu duela.

"Berrikuntza eta Ekonomia Sustapen Sailak enpresa eta entitate anitz bideratutako laguntza ematen du, betiere, lurraldeko turismoa sustatzeko xedearekin", azaldu du Zenarruzabeitiak. Hain zuzen ere, diputatuak komentatutako diru-laguntza 700 mila eurokoa da (urte bakoitzeko).

Arabako turismoaren indarguneak

Lurralde historikoan hobeto funtzionatzen duten ekimen edo jardueren inguruan, "Arabar-Errioxa indargunerik garrantzitsua dela esan genezake; argi dago oso ondo funtzionatzen duela eta emaitza positiboak ematen dituela". Hiriburuari dagokionez, nahiz eta EAEko gainerako hiriburuak alderatuz Gasteiz turismo gutxi mugitzen

Gabonetatik emaitzak positiboak izan dira

duena izan, "katedralak, bibatek eta Artiumak osatzen duten ardatza oso erakargarria da; gainera, hiru proiektu edo museo horietan Foru Aldundiak aktiboki parte hartzen du eta oso pozik gaude emaitzekin", gaineratu du diputatuak.

Bestalde, Zenarruzabeitiak Gesaltzako zonaldeak (Añana - Salinas) azkenaldi honetan izan duen arrakasta nabarmendu du; "horretaz

gainera, momentu honetan Santiago bide arabarra bultzatzen ari gara, bai hegoaldekoa, baita iparraldekoa ere, Frantzia egiten denaren alternatiba gisa", esan du diputatuak.

Lurraldeko garraioa

Arabara iristeko aukera EAEko beste hirietakoa baino mugatuagoa dela esan genezake; hala ere, trenari esker, aukera horiek hedatzen ari dira eta AHT berria eraiki ostean, "ziurrenik jarduerako ekonomikoak gora egingo du, komunikazioak hobetzen dituen edozein azpiegiturarekin gertatzen den bezala", azaldu du Arabako diputatuak.

Alabaina, aireportuari begira, "low cost deituriko lineak ez dute oso ondo funtzionatu, eta ezin diegu diru-laguntza zuzenik eman linea hauei. Kasu honetan, beharrezkoa da AENA konpainiak erakunde arteko lana egitea, hegaldiak banatzea, esaterako", gaineratu du Zenarruzabeitiak.

ERREPORTAJEA

EAEko kaleratzearen kostuaren inguruko eztabaida ireki da

Euskadiko kaleratzearen kostua gehiegizkoa dela diote enpresarien eta ugazaben erakundeek; aldiz, sindikatu gehienek eta langileek diote enpresentzat oso erraza dela langileak kaleratzea, besteak beste, merke irteten zaielako. Hain zuzen ere, Euskadiko kaleratzearen kostuaren batez bestekoa EBkoa baino altuagoa da, baina, aldi berean, espainiar Estatukoa baino baxuagoa.



Krisia dela eta, kaleratzearen kostua gai eztabaidagarri bihurtu da azken aldi honetan; kontuan izan behar dugu, adibidez, Euskadiko langabezia tasa izugarri igo dela 2009. urtean, eta datu horiek 2010ean hobetzea lan zaila izango dela; zehazki esateko, EAEn, 134.000 langabe inguruk eman dute izena INEMeko zerrendetan. Dena dela, espainiar Estatuko emaitzak askoz larriagoak dira eta egoera hobetzea oso zaila da, 4 milioi langabe inguru baitaude, hau da, ia biztanleria aktiboaren %20.

Gauzak horrela, Estatuko enpresen erakundeek (CEOE buru) behin baino gehiagotan errepikatu dute kalera-tzea garestiegia dela Europako mendebaldeko batez bestekoarekin alderatuz, Euskadiko kaleratzearen kostuak Europako batez bestekoak baino altuagoak

baitira. Hau da, Euskadiko langile batek 56 asteko soldata eskuratzen du, eta Europar Batasunean (EB-15), berriz, 27 asteko soldata lortzen du, Munduko Bankuaren datuen arabera.

EBko kaleratzearen kostua

Halere, Alemaniako kasuan, kaleratzeengatik ematen diren kalte-ordainak Euskadikoak baino askoz ere altuagoak dira, Europar Batasuneko kaleratze kosturik garestienak baititu, 69 asteko soldata, hain zuzen ere. Alabaina, Europako merkatuaren artean, Alemaniakoa da aurreratuenetakoa, eta bere joera ekonomikoa ere onenetakoa da. Adibidez, langabezia tasari dagokionez, Espainiakoa tasak Alemaniakoa bikoizten du.

Aldiz, Euskadiko emaitzen kasuan, kontuan izan

behar dugu batez besteko soldata gordina 25.488 eurokoa (urtean) dela, Estadistika Institutu Nazionalaren (EIN) arabera. Zifra hori, EB-15ekoarekin alderatuz, nahiko baxua dela esan dezake-

2009an,
35.000 euskal
langileren
kontratu finkoak
eten ziren

gu; izan ere, duela bi urte inguru, Europar Batasuneko batez bestekoak 34.412 eurokoak ziren eta. Ildo berari jarraituz, EAEn langile bat kaleratzeak 27.448 euroko kostua duen bitartean, Alemaniako kostuak 55.320 eurokoak dira. Horretaz gain, EBko kaleratzearen kostua 17.867 eurokoa da.

Estatuko enpresen egoera

Estatuko kaleratzeek gora egin dute azken urtean, eta kaleratze horietako asko kontratu mugagabeak ziren. Hori dela eta, ugazaben erakunde batzuek, tartean Espainiako Enpresa Ertain eta Txikietako konfederazioak, kaleratzearen kostuak jaisteko eskatzen dute, langileak kanporatzea garestiegia delako.

Horren harira, ELA sindikatuak nahiz Madrilgo Gobernuak azpimarratu dute aldi baterako kontratuen kopurua hazi egin dela; izan ere, enpresariak, askotan, kontratu mota honetara mugatzen dira. Esate baterako, joan den urtean, hilabete bat baino gutxiagoko kontratuak 4,7 milioi izan ziren guztira Estatu osoan; zehazki, horietako 2,7 milioi, aste bat baino gutxiagorako izan ziren.

2009ko emaitza ezkorrak

Lehen esan dugun bezala, joan den urtea oso latza izan zen langabeziari dagokionez; Euskadin, adibidez, 26.000 langileri 'expres kaleratzea' deiturikoa aplikatu zitzaizen. Beste alde batetik, kanporatze bakoitzagatik eman zen kalte-ordaina 43.812 eurokoa izan zen, batez beste; gainera, 4.323 langilek auzitara eraman zituzten euren kasuak.

Gauzak horrela, 2009. urtean, 35.000 euskal langile ingururen kontratu finkoak eten ziren. Hori Euskadiko markarik altuena da; gainera, lan-etan horietako 9.000 Enpleguen Erregulazio Espedienteen (EEE) bidez izan dira. Beraz, dirudienez, enpresek, aldi baterako kontratuak moztu ostean, kontratu finkoak hartu dituzte helburu gisa.

Sindikatuaren jarrerak

Sindikatu bakoitzak bere izaera eta iritzia pertsonala du, eta kaleratzearen kostuari dagokionez ez da gutxiago izango, kasu honetan ere talde bakoitzak ikuspuntu desberdina edo batzuetan antzekoa izaten baitu. Hain zuzen ere, ELAko idazkari nagusia den Adolfo Muñozen aburuz, helburu nagusiak dira "artxo publikoan pribatizazioak zabaltzea eta finantzen sektorean eta enpresetan irabaziaz handitzea, langileen eskubideen lepotik". Muñozen arabera, botere ekonomiko eta politikoen arteko azpikeria martxan jarri da.

ELAK, batez ere, Gobernu zentrala kritikatu du, esanez lan erreforma guztiak bide beretik joan direla; bestalde, Aldi Baterako Laneko Enpresa eta gainerako enplegu bitartekaritza pribatuei dagokienez, ELAko idazkari nagusiak gaineratu du irabazi asmoa duten enpresak direla eta "langileen soldate-tatik lortzen dituztela etekinak". Ildo beretik

jarraituz, Muñozen sindikatuak malgutasuna handitzeko eta gazteentzako kontratu prekarioak sortzeko asmoak salatu ditu.

UGT eta CCOOren ikuspegia

ELAko idazkari nagusiak beste bi sindikatu indartsuenen jarrera kritikatu du, UGT eta CCOOrena, hain zuzen ere. Hortaz, bere aldetik, Ignacio Fernández Toxo CCOOko idazkari nagusiak aitortu du prest dagoela kanporatzearen eredu desberdinei buruz eztabaidatzeko. Ohartarazi du, Austriar, eraginokorra izanda ere, herrialde txikiagoa dela eta hango langabezia %5ekoa dela.

Hala eta guztiz ere, mahaian proposatutakoa denborarekin eztabaidatzearen alde agertu da Toxo. CCOOko idazkari nagusiak argi utzi du zeintzuk diren, bere aburuz, hartu beharreko neurriak: lanaldia murriztea eta



Adolfo Muñoz 'Txiki', ELAko idazkari nagusia

pizgarriak bideratzea iraupen luzeko langabe eta gazteentzat, besteak beste.

Dena den, Maribel Ballesteros UGT-Euskadiko Ekintza Sindikaleko idazkari argi utzi du bere ustez kaleratzea errazegia eta oso merkea dela, "nahiz eta askok garestia dela adierazi". Horretaz aparte, Ballesterosek dio erreforma berriak egin behar direla: "beharrezkoa da neurri berriak eta kaleratzea geldiaraziko dituzten neurriak hartzea", gaineratu du UGT-Euskadiko idazkariak.

TEKNOLOGIA

Kotxe-irradiak

Jende askorentzat kotxea da bigarren etxea izango balitz bezala, bertan egunero zenbait minutu edo ordu igarotzen dituzte lanera joateko, lan egiteko edo bidaiazteko. Hori dela eta, bidaia horiek aspergarriak ez izateko musika entzutea komenigarria da; hortaz, uda honetan zure kotxean musika faltan ez botatzeko hiru irrti moderno eta berriak gomendatuko dizkizuegu.

Nola ez, irrti hauek egungo garaia eta egoerara moldatu dira eta musika entzuteko hainbat modu onartzen dute: USB, CD edo Bluetooth, esaterako.



LG LAC6900RIN

CD (mp3), USB, Ipod
90 €

PIONEER DEH-3200UB



CD (mp3), USB, 50 watt X 4
103 €

CD (mp3), USB, Ipod eta Iphone
126 €

SONY
CDX-GT540UI

ARDOAK

BIZKAIKO
TXAKOLINA

Bizkaia industria eta hiri garapen sendoa duen eremua da. Bere tradiziozko ekoizkin berezien artean Txakolina aurkitzen da, gizarte eta ekonomia mailan presentzi izugarria izan duen produktuak. Tonuak hori argitik lastoaren antzeko kolore horixkara doaz, eta tonu horiek berdexkak ere izan daitezke. Distiratsua eta gardena da. Intentsitate ertaineko oinarritzko usainak ditu, bai eta nabardura ugari ere.



KATAN

UPELTEGI: Oxinbaltza
ALDAKIA: Zuria
PREZIOA: 5 €

URIARTE ROSADO

UPELTEGI: Uriarte
ALDAKIA: Gorriz
PREZIOA: 7 €



MENDRAKA

UPELTEGI: Elizalde
ALDAKIA: Zuria
PREZIOA: 6,50 €



JATETXEA



Jatetxe moderno eta berritzaile hau Donostian kokatuta dago. Sukaldaritza freskoa eta bizia, dinamikoa, naturala eta denboraldikoa da. Sasoi bakoitzean azokak eskaintzen dituen produktu fresko eta goi-kalitatekoak arduraz aukeratzen dute sukaldariek, lantzen dituzten menuak ezinhobeak izan dezaten.

Xarman eskaintza gastronomikoa formatu desberdinetan aurkezten dute, bezeroek aparteko aukeraketa egin dezaten bai kartaren bidez bai laia eta xarma menuen bidez. Bestalde, ardoei dagokienez, karta egungo ardo gazteenak osatzen dute.

Xarma Jatetxea

Menua - 65 € (BEZarik gabe)

Gazigarri

Barazkiak tomatea, sagarra eta urdaiazpiko iberiarreko krema carpaccioan

Gorringo erreta (arrautza eta zainzuria) eta Iratikoko zopa

Laranja loreko biscuit kakaozko karamelu mehearekin eta kafearen hondarrarekin

Harremanetarako datuak:

Tolosa etorbidea 123, behea
Donostia 20018
(Gipuzkoa)
TEL.: 943 317 162
restaurant@xarmajatetxea.com
www.xarmajatetxea.com


AISSIALDIA

Estresari aurre egiteko hileko proposamena

Urkiolako Parke Naturala

Urkiolako Parke Naturala Aramotz mendizerrak, Durangaldeko mendiek eta Arangio mendizerrak osatzen dute, Bizkaiko Itsasoko uren eta Mediterraneoaren mugal-erroa eratzen dutenak hain zuzen ere. Parkearen erdialdera iristeko erarik erosoena Durango eta Gasteiz batzen dituen BI-623 eskualde errepidetik joatea da, hori baita Parkea zeharkatzen duen errepide bakarra.

Urkiolako Santutegia
Antonio Santuen Santutegia EAEko erdi-erdian kokatuta dago eta bere teilatuak euri-urak banatzen ditu; alde batekoak, Bizkaian zehar Bizkaiko Golkora bidaltzen ditu, eta besteak, aldiz, Arabako Lautadan zehar Ebrora.



Ekintza anitzak

Parkeak naturaz gozatu ahal izateko ahalbide ugari eskaintzen dizkigu, kirolarekin, aisiarekin edota naturarekin zerikusia dutenak. Aipatutako jarduera horien artean xenda-zaletasuna edo eskalada aurkitzen dira, besteak beste.

- + **Eskalada:** esaterako, Aitz-Txiki eta Alluitzeko malda malkartsuak eskalatzailen gozamina dira, harkaitz ikaragarriak beteta baitago. Eskalatzailen artean oso ezagunak dira Usokobetagane, Saukukogane, Urresteri eta beste hainbat kareharrizko haitz zorrotz.
- + **Xenda-zaletasuna:** Urkiolako parkeak ingurune ezinhobea eskaintzen digu jarduera hau aurrera eramateko. Hortaz, zalantzarik gabe goza ditzakegu bere xenda-sare zabala, antzinako bideak, mendi ibilbide tradizionalak edo Parke deklaratu ostean egindako bide berriak ere.

LAN ESKAINTZAK

BASO LANETARAKO PEOIA
Aramako herri terrenoetako garbiketa, desbrozatzeko, itxitura eta gune naturalaren hobekuntza lanak. Ezinbestekoa: B gidabaimena, desbrozadora manejatzen jakitea, langabezia egotea, langabeziko prestazioa ez jasotzea, Euskal Autonomi erkidegoan erroldatua egotea. Euskera jakitea, goierrin erroldatua egotea, baso lanetan esperientzia eta dirusarrerak bermatzeko errentaren hartzaile izatea baloratuko dira. 6 hilabetetako lan kontratua eskeintzen da. Hileko soldata gordina: 1.450€. Ekainaren 15-ean hasteko

PROIEKTUEN ARDURADUNA BEASAINEN
Proiektuen arduraduna Javan eta. Net-en egindako proiektuak kudeatzeko, lantalde ezberdinak kudeatu beharko lituzke, bezeroekin harreman zuzena edukiz. Epe laburrean kontuen gerezitza enfokaturik. Ezinbestekoa ingeneritza tekniko informatikoa edo nahiago goi mailako ingeneritza informatikoa, euskera eta inglesa menperatzea, bezeroak kudeatzeko prestasuna, esperientzia horrelako lanetan. Spring framework, JSF, EJB 3.0, hibernate, maven, ant programen ezagutzak. Kontrato mugagabea, berehala hasteko prest.

INGENIARIA
Goi mailako industri ingeniaria edo ingeniari tekniko mekanikoa behar da. Eginbeharrekoa: Energia berriztagarrien inguruan proiektuak egitea. Ezinbestekoa da euskara maila altua izatea eta lanerako gogoia izatea.

ZERBITZARIA
Funciones: zerbitzari euskaldunak behar da asteburuetarako, Donostia erdian dagoen taberna baterako

BIDEA GARBITZEKO PEOIA
Lea Artibaiko auzo bideak eta bide bazterrak garbitzeko lanak. Baldintzak: mendi lanetako eza-gupenak izatea, makineria erabiltzen jakitea (desbrozadora, ...). Esperientzia antzerko lanetan. Lana: 8:00-13:00 eta 14:30-17:30. Kontratu: epe baterako.

SUKALDARI LAGUNTZAILEA
Menuak prestatu (karta, plater konbinatuak ...). Ezinbesteko baldintzak. sukaldean gutxienez urtebeteko esperientzia izatea. Gida baimena eta kotxea edukitzea. Eskualdekoa izatea. Langabezia egon eta prestazioa ez kobratzea.

ALUMINIO LANETARAKO SOLDADOREA
Aluminio lanetarako soldadorea segurarako, aluminiozko piezak prestatu, esmerilatu, montatu eta gero plantilatan soldatzeko. Derrigorrezkoa aluminioan soldatzea, aldi baterako kontratua, dena ondo joan da 2 urte, errelebotan, berehala hasteko prest, goierritarra edo inguruko.

Lan eskaintza gehiago Lanbide.net Euskal enplegu zerbitzuko webgunean.

EKONOMIA HIZTEGIA

EUSKARAZ / GAZTELERAZ / INGELERAZ

- KALERATZE=DESPIDO=DISMISSAL
- MUGAGABE=ILIMITADO=UNLIMITED
- LISKAR=PELEA=QUARREL
- ZERRENDATU=ENUMERAR=TO LIST
- DEIALDI=CONVOCATORIA=CALL
- ERAIKUNTZA=CONSTRUCCIÓN=CONSTRUCTION
- BERRITUTA=RENOVADO=RENOVATED
- ORDEZKARITZA=DELEGACIÓN=DELEGATION
- ONGIZATE=BIENESTAR=WELFARE
- GARAPEN=DESARROLLO=DEVELOPMENT
- TINKO=FIRME=FIRM
- ESKUALDE=COMARCA=REGION
- MERKATURATU=COMERCIALIZAR=TO COMMERCIALIZE
- IRAGARRI=ANUNCIAR=TO ANNOUNCE
- ADOSTASUN=CONFORMACIÓN=APPROVAL
- AUZITEGI=AUDIENCIA=HIGH COURT

SUDOKU

Buruari gogor eutsi eta ebatzi sudoku hau

	8						
6		1		3			2
			8				
				6	3		
9	1						4
7	4				5		6
8		5		7			
				2			8
	2	9			1	6	4

ERANTZUNAK


Zenbat denbora eman duzu sudokua ebazteko? Hona hemen erantzunak.

1	2	3	4	5	6	7	8
8	7	6	5	4	3	2	1
7	6	5	4	3	2	1	8
6	5	4	3	2	1	8	7
5	4	3	2	1	8	7	6
4	3	2	1	8	7	6	5
3	2	1	8	7	6	5	4
2	1	8	7	6	5	4	3
1	8	7	6	5	4	3	2

ekonomiarenKZ
Euskal Ekonomiaren Kazeta

BISITA GAITZAZU GURE BLOGEAN!
ekonomiarenkz.wordpress.com

Albiste berriak egunero eta adituen iritziz



Lan eskaintza gehiago Lanbide.net Euskal enplegu zerbitzuko webgunean.

JOSE ANGEL CORRES

Bilboko Merkataritza Ganberako presidentea

Jose Angel Corres Bilboko Merkataritza Ganberako presidentearen kargua hartu zuen martxoan, Ignacio Echebarriaren ondorengo bihurtuz. Hala ere, Corresek esperientzia handia du arlo honetan, eta azken urteetan harreman estua izan du Ganberarekin. Presidente berria Bilboko Portu Agintaritzaren buru ere izan zen. Gauzak horrela, Ekonomiaren KZ Corresekin harremanetan jarri da, elkarrizketa egiteko.

“Egoera eskasa bizi dugu, baina azken hilabeteetan hobetu egin da”



Corres ez du argi ikusten ACS taldearen sarrera Iberdrolan

Zein egoeratan aurkitu zenuen Merkataritza Ganbera Presidentziara ailegatzerakoan?

Egoera bikaina da; aurreko urteak pozgarriak izan dira ekonomiaren arloan, eta Ganberatik aprobetxatu egin da momentua. Hemendik aurrera, irabazitako hori guztia ondo kudeatzea egokitzen zaigu, jasotako ondasunak egun batetik bestera gal ez daitezzen.

Nola baloratzen duzu zure aurrekoaren lana? Zure ustez, zeintzuk dira hobetu daitezkeen alderdiak?

Berak aldeko giroa aurkitu zuen, izan ere, azken 12 urteotako ziklo ekonomikoa berezia izan da, hazkunde etengabearekin. Aldiz, egungo kasua guztiz desberdina da, krisialdi ekonomikoa dela medio; horregatik, orain dugun lana desberdina da, askoz zailagoa, izan ere.

Datorren urtean Bilboko Merkataritza Ganberak 125 urte beteko ditu; zein da egiten duzun balantzea edo nola baloratuko zenuke, orokorrean, Ganberak urte hauetan egindako lana?

Egindako lana ezinbestekoa eta oinarritzakoa izan da. Duela 120 urte inguru industrializazioan murgilduta geunden, eta Merka-

taritza Ganberaren sorkuntza hainbat gai edo konturen aitzindari bihurtu zen.

Eguno krisi ekonomikoren eraginez, euskal enpresen hazkundera eten egin da; zeintzuk dira honen inguruan egiten dituzun aurreikuspenak?

Ekoiaren ahalmenaren %72 erabili da, eta horrek hazkunderaren nondik



Jose Angel Corres, bilboko Merkataritza Ganberako presidentea

norakoak azaltzen ditu. Dena dela, azkeneko urteetan BPGK behera egin du eta izandako deflazioak eragin negatiboa izan du. Hortaz, jarraitu beharreko bidea eskasa da, baina, hobekuntza lortzeko, guztiz beharrezkoa da ildo horri segitzea. Gainera, oraindik, kutsu negatiboa duten albisteak gailentzen dira positiboak direnen aurretik.

Zein da zure diagnostikoa Bizkaiko merkataritzaren egungo egoeraren inguruan?

Egoera hobetu egin da, baina, iraganarekin alderatuz, eskasa dela esango nuke. Hala ere, une honetan ez gaude esaten den bezain txarto, eta duela hilabete edo urte batzuk ere ez geunden esaten zen bezain aberats. Azken fi-

nean, merkataritza gutxiengo kezkarria murriztu da; hori dela eta, egoera ekonomikoa hobetu egin behar da, eta kontsumitzaileok beldurra galdu behar dugu, beti kontsumitzaile onak izan baikara.

Zer iruditzen zaizu azalera handiko merkataritzaguneez duten eragina merkatu txikiaren gainean?

Neurri batean, merkatu txikiari kalte izugarria egiten diote, baina gure bizitza erarekin lotuta dagoen kaltea da, hau da, 2010ean baloratzen ditugun balioak kontuan hartuz, kontsumitzaileok gure filosofia aldatu dugu, eta, berarekin batera, baita erosketak egiteko era ere, besteak beste.

Horretaz gainera, sarritan, ordutegiari dagokionez, gure aukera bakarra azalera handiko merkataritzaguneez dira; hori dela eta, merkatu txikiak beste nixto edo estrategia batzuk bilatu beharko ditu.

Zure aburuz, alderdibitasun politikoak eragina du negozio kolektiboaren gainean?

Arazoa da kooperazioko kulturarik ez daukagula, hots, politikari edo alderdi politiko bati bururatzen zaion ideia edo ekimena automatikoki errefusatuko du oposizioak. Horregatik, nire ustez, kooperazioko kultura hori da gure gizartean falta dena. Arlo politikoko erabaki garrantzitsuenetan alderdi guztien adostasuna egongo balitz, askoz errazagoa izango litzateke krisialditik ateratzea eta arazoak gainditzea.

Iberdrolari dagokionez, enpresaren administra-

zioan Florentino Pérez sartu ostean, zein uste duzu izango dela ACSren eragina Iberdrolan etorkizunean?

ACS taldea ikaragarria da eta autoelikatuta egiten da. Beraz, epe ertain edo luzean eragin beldurgarria izan dezake enpresa ertain edo txikietan, hau da, enpresa horiek beste batzuen trukean ordezkatu ahal ditu, Iberdrolaren azpikontratisten kasuan.

“Kontsumitzaileok beldurra galdu behar dugu”

Nazioartekotasunak egun duen garrantzia kontuan hartuz, oro har, Euskadiko enpresak nazioarteko merkatura ateratzeko prest daudela esango zenuke?

Bai, zalantzarik gabe. Euskadin kudeaketa ona egin da; agian ez gara gehiegi kezkatu berrikuntzari edo desberdintzeari dagozkion gaiez, baina lan handia egin dugu Euskadiko enpresek kanpora irteko aukera izan dezaten. Dena den, merkaturatzean egin beharreko lana edo esfortzua handiagoa izan behar da.